BETIKO IKASTOLA

0-16 URTE

GIDA

BETIKO IKASTOLA
Artatza auzoa, 84
48940 Leioa (Bizkaia)
Tel. 94 464 23 64
info@betikoikastola.eus

GU ikastola

ikastolenelkartea

BETIKO IKASTOLA

GURE IKASTOLA

ZER GARA?

Betiko Ikastola herri ekimenez sortutako guraso kooperatiba da, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea dena eta Hezkuntza Administrazioarekin ituna duena.
Euskara eta Euskal kulturarekin konprometitua eta aldi berean, beste kulturetara irekia dagoena.
Akonfesionala.
Aldatzen ari den gizartean, etengabeko hobekuntzaren bidez eta partaide guztien elkarlanean oinarrituz, 0 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei konpetentzietan oinarritutako hezkuntza eskaintzen diena.

NORA GOAZ?

Kalitatezko euskal hezkuntza eskaintzen duen erreferentziazko ikastola izan nahi dugu. Horretarako eremu hauek garatzen ditugu:

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA
Euskararen erreferente izan nahi dugu

IKASLEA ARDATZ
Ikaslea Ikastolako ardatza.

BAZKIDEAK
Ikaslearen heziketa prozesuan familiekin bidelagun izan eta familiaren partaidetza, inplikazioa eta izaera kooperatiboa indartzen ditugu.

LANGILEAK
Erronkei eta aldaketei aurre egiteko koordinazioa, elkarlana eta etengabeko formazioa.

BERRIKUNTZA
Gaur egungo gizartearen beharrei erantzuteko eta XXI. mendeko ikastola eredua irudikatzeko jarrera berritzailea eta ikertzailea dugu.

ETORKIZUNA
Euren semen-alabentzako ikastola eredua aukeratzen duten herritar orori erantzuna ematen diogu.

HERRIA
Herritarrok, herritik eta herriarentzat sortutako eta zuzendutako proiektua da gurea. Herri ekintzetan eragile eta parte hartze aktiboa izatea dugu helburu.

BALOREAK:

hobekuntza irekia
lana iniziatiba konfiantza
Talde laikotasuna kritikoa
Enpatia Eraldatzailea Sormena
Kulturartekotasuna
Euskaltzaletasuna
Herritarra kooperatiboa Talde lana
Errespetua
ausardia

ARDATZ NAGUSIENAK

EUSKALTZALETASUNA:

Euskararen erreferente izan nahi dugu, horretarako euskaraz bizitzera eta euskal kulturaren igorle eta bultzatzaile izatera konprometitzen gara. Hori izan zen duela 50 urte baino gehiago gure sorreraren ziorik nagusiena eta gaur egun ere horretan dihardugu Betiko ikastolako komunitateko kide guztiok.
Helburu hau modu sistematiko batean lantzeko bi lan talde ditugu: Hizkuntza Proiektua eta Euskaraz Bizi. Euskara ardatz nagusiena izan arren, gure ikasleak eleanitzak izatea nahi dugu eta hizkuntzak era integratu batean lantzen ditugu gure hizkuntza proiektuan, berez, gaztelaniak, ingelesak eta frantsesak beraien espazio propioa daukate bertan.

ERRESPETUA ETA KONFIANTZA:

Besteenganako, norberarenganako eta inguruarekiko errespetua eta konfiantza. Giro ona eta atsegina lortu nahi dugu gure Ikastolan.
Hainbeste pertsona elkarrekin denbora luzez egonik, gure artean gatazkak sortzea guztiz arrunta da, bizitzaren hezkuntzaren arlo garrantzitsua da hau. Horregatik, gure artean, aniztasunaren errespetua gailentzea funtsezkoa da.

Bizikidetza positiboa lortzeko programa desberdinak lantzen ditugu:

BIZIKIDETZA: Norbera izaten ikasi eta elkarrekin ingurune inklusibo batean bizitzen ikasteko konpetentziak guztiz beharrezkoak dira gure bizikidetza proiektuan. Horretarako, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara astean saio bat daukagu adimen emozionala garatzeko estrategiak emateko, eta horrez gain, zehar lerro moduan ere beste ordu guztietan lantzen da.

TUTORETZA: Egunerokotasunean sortzen diren gatazkak bideratzeko, parte hartzaileak izateko, erabakiak hartzeko plana da. Tutore eta ikaslearen arteko harreman estuari garrantzi handia ematen diogu.

ANIZTASUNA: Aniztasunari erantzuna ematea da ikastolaren erronka handietako bat. Ikasle guztien berezitasunei erantzun egokia ematen dien irakaskuntza kalitatezko irakaskuntza da.
Aniztasunari erantzutea profesional guztiei dagokie, eta ikasle guztiak eta aniztasunaren alderdi guztiak hartzen ditu kontuan: kultura, gaitasunak, joera sexualak eta afektiboak, generoa, baliabide sozioekonomikoak eta abar. Gure hezkuntza-jarduerak erantzun egokia eman nahi die ikasle bakoitzaren beharrei eta ezaugarriei (behar, adimen eta gaitasun anitzak, interes desberdinak, ikasteko estiloak eta abar).
Gure ikasle guztientzako inklusio-irizpideetan oinarritutako hezkuntza-sistema justu eta kalitatezkoa garatzeko konpromisoa hartzen dugu.
Hezkuntza prozesu jarraia gisa ulertzen dugu, eta prozesu horretan arrakasta eta pertsona guztien parte-hartzea bilatzen ditugu, inolako bazterkeriarik gabe.

KIVA: Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik aurrera jazarpenaren prebentziorako lantzen dugun programa bat da. Prebentzioaz gain, jazarpena ematen denean, modu eraginkor batean bideratzeko protokolo zehatza dugu.

HEZKIDETZA: Genero ikuspegia lantzeko eta gure ikasleak gizartearen eta beraien jarreraz gai honen inguruan kontzienteak izan daitezen proiektua martxan daukagu.

AGENDA 2030: Ingurua eta natura baloratzeko, errespetatzeko eta kontzientzia hartzeko programa da.

ARDATZ NAGUSIENAK

BASOA: Basoko proiektuaren helburua natura eta espazio naturalak eskola bihurtzea da. Ikaste prozesuan, natura baliabide pedagogiko bilakatzen dugu, haurra eta naturaren arteko elkarrekintzen bidez haurraren garapen integrala bultzatuz.

Proiektu honen bitartez honako helburuak lantzen ditugu:
- Taldekideen arteko elkarrekintza bultzatu.
- Ikasleen motrizitatea estimulatu.
- Haurraren autonomia garatu.
- Naturarekiko errespetua eta zaintza transmititu.
- Naturako elementuen ezagutza sustatu.
- Haurren gaitasunak, trebetasunak, ezagutzak eta kezkak esperimentazioaren bidez sustatu.

Haur Hezkuntzako 4 urteko gelatik Lehen Hezkuntzako 3. mailara bitartean garatzen da, ikastola alboan kokatuta dagoen harizti batean.

BETIKO IKASTOLA ikastolenelkartea

ELKARLANA:

Ahalik eta lan eta proiektu gehien talde lanean lantzen ditugu. Gure ikasleak, norbanakoa ahalik eta gehien garatzeko, talde lanean aritzeko baldintza egokiak sortzen ditugu, aniztasuna errespetatuz, etapa eta proiektuen artean koherentzia egonik eta eraldatzailea izanez. Horretarako, elkar ezagutza bultzatzen da, enpatia jorratu eta adostasunez erabakiak hartuz.

PROIEKTU PEDAGOGIKOA

HH 0-5 URTE BITARTEAN

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA ETA KUKU

Haurrak txikitatik berarekin dakartzan berezko gaitasunak (ekiteko ahalmena) askatasunez garatzen eta aberasten laguntzen dion pedagogia da gurea, konfiantzan eta emozioen kudeaketan oinarritzen dena.

Gure haurrek zailtasunak kudeatu, eta beraien gaitasun guztiak garatu ahal izateko KONFIANTZA behar dute bere buruengan, besteengan eta inguratzen dituen horrengan..

Betikon, Haur Hezkuntzan argi daukagu haurrak bere baitan daukala pertsona gisa garatu eta zoriontsu izateko ahalmena. Horregatik, berezkoak dituen gaitasun horiek garatzeko, espazio euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten dugu: Haurren autonomia eta elkarrekintza bultzatzen dituena. Beraien jolasa eraikitzeko aukera ematen diena, eta eginez eta gozatuz ikastera gonbidatzen dituena.

Oinarrizko emozioak lantzeko emozio-programa erabiltzen dugu, KUKU izenekoa, norbere emozioak ezagutzeko, erregulatzeko eta besteenak hobeto ulertzen laguntzeko, ahozkotasuna oinarri hartuta.

"jolasten ikasteko eta ikasten jolasteko"

BETIKO IKASTOLA ikastolenelkartea

KIMU, LEHEN HEZKUNTZAKO 1,2,3 MAILAK

Gure ikasleak bere ikaste prozesuaren subjektu aktibo izatea dugu helburu eta bide horretan, taldean lan egiteko gaitasuna lantzea.

Haurraren garapen afektiboak konfiantza eta segurtasuna ditu oinarri, horregatik Konfiantzaren eta Integrazioaren Pedagogiaz baliatzen da. Batetik, konfiantza, haurra bera bere buruarekin eta ingurukoekin seguru sentitu dadin eta segurtasun horrek ematen dion konfiantzaz bere ezagutza eta jakintza handitu ditzan. Eta bestetik, integrazioa haurrak lantzen dituen edukiak barnera ditzan eta horiekin bizitzako egoerei eraginkortasunez erantzuna eman diezaien.

EKI, LEHEN HEZKUNTZAKO 4,5,6 MAILAK

EKI PROIEKTUAK konpetentziak eta egoerak uztartzen ditu. Integrazioaren pedagogia du ardatz proiektu honek, modu ulergarrian konpetentziak ahalik eta egoera errealenetara eramanez bere ikasketa prozesuaren jabe eginez.

"Esaidazu, eta ahaztuko dut; erakutsidazu, eta gogoan hartuko dut; parte hartzen lagun nazazu, eta ikasiko dut."

PROIEKTU PEDAGOGIKOA

DBH 12-16 URTE BITARTEAN

KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO PROIEKTUA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza funtsezko etapa dugu ikaslearen garapen osoan, ikaslea bera eta bere ibilbidean aukerak hartzen hasten delako. **Bizitzako testuinguru errealen egoerei aurre egiteko prestatzen.**

Etapa honetan EKI metodologia lantzen jarraitzen dugu, aurreko etapari jarraipena emanez. EKI proiektuak konpetentzietan oinarrituta dagoen Euskal Curriculuma garatzen du Integrazioaren Pedagogiaren bitartez.

EKIk Integrazioaren Pedagogia hautatu du. Ikasleak egoerei irtenbideak aurkitzen ikasi behar du, ikasitakoa egoera berrietan transferitzeko eta baliatzeko.

Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen, aukeratzen eta erabiltzen ohitu behar dute; irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta talde lanean aritu, arazoen soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu.

Ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko, autoerregulazioari eta ebaluazio hezitzaileari garrantzia emanez, irakaslea bidelaguna izanik.

Ikasleek IKT konpetentzietan eta ezagutzan sakon dezaten, euskarri desberdinetan aurkezten da EKI proiektuaren materiala, paperean eta digitalean.

Etapa honetan hainbat ikasle talde daude martxan: Euskaraz Bizi taldea (HIZPRO), Talde Feministe (HEZKIDETZA) eta Ikasle Laguntzaileak (KiVa)

"Zailtasunetan ikasiz, jausi orduko berriro jaikiz;
helmuga begi bistan, ume ginenok heldu gara."

ELKARTRUKEA ikastolako proiektuaren parte da eta DBH 4. mailan aurrera eramaten da.
Gazteen autonomia, euskara eta ingeleraren erabilera, kultur-artekotasuna, elkarbizitza eta ardurak hartzea helburu dituena. Europako beste ikastetxe batekin burutzen dugu Elkartrukea (Holanda, Polonia..)

ZERBITZUAK

JANTOKI ZERBITZUA, SUKALDE PROPIOA

Jantokia eremu hezitzailea da eta jantokian gure ikasleek jaso eta bete behar dituzten ohiturak zehaztuta daude.
Orokorrean jan ohitura osasungarriak jaso behar dituzte, denetarik jaten ikasi, jateko tresneria egoki erabili, txukuntasuna eta garbitasuna bermatu eta besteenganako errespetuz jokatu.
Haurrek autonomia garatu behar dute jantokian ere, eta horretarako adinez-adin bete beharreko urratsak zehaztuta ditugu.
Umeren batek menu bereziren bat behar badu Ikastolan bertan prestatzen zaio, arrazoiak edozein direla ere.

Menua ikastolan bertan prestatzen da, menuaren lanketa guztia ikastolako sukaldariek egiten dutela modu integralean, menua diseinatu, erosketak egin, eta prestatu; guztia bitartekaritza barik egiten da.

Menuaren oinarria diren elikagaiak zuzenean erosten dira baserrietan, inguruko komertzio txikietan, Errigoran, Pasaiako portuko kooperatiban... 0Km filosofiarekin lan egin eta sasoian sasoikoa kontsumituz.

ZAINTZA ZERBITZUA

- Goizeko zaintza zerbitzua. 8:00etatik 9:00etara. 3-4-5 urtekoak eta LH 1-2
- Arratsaldeko zaintza zerbitzua. 18:30ak arte merienda barne. 5 urte arteko umeei zuzendua
- Jardun jarraian gaudenean arratsaldeetako zaintza zerbitzua. 5 urte arteko umeei zuzendua.
- Iraila hasierako egunetako zaintza zerbitzua. 5 urte arteko umeentzat.
- Ekaina bukaerako egunetako zaintza zerbitzua, 5 urte arteko umeentzat.
- Udalekua LH 3 arteko umeentzat
- Uztaileko zaintza zerbitzua. 5 urte arteko umeentzat.
- Gabonak eta Aste Santuko zaintza zerbitzua. 5 urte arteko umeei zuzendua.
- Negulekua. LH 3 arteko umeentzat.

ESKOLAZ KANPOKOAK

- Eguerdietan: argazkigintza, eskulanak, antzerkia, ortua, psikoritmoa, …
- Arratsaldetan kirolak: Heziki, pala, esku pilota, saskibaloia…

GARRAIO ZERBITZUA

4 autobusek betetzen dute ikastolako garraio zerbitzua.
Eremu zabala hartzen du gure garraio zerbitzuak, Sarriko, San Inazio, Erandio, Astrabudua, Leioako auzo guztiak eta Getxo, Berango eta Sopelatik ere pasatzen gara, nahiz eta ez diren gure eremukoak.
Zerbitzua goizez eta arratsaldez zein goizez edo arratsaldez erabili daiteke.
Behar berezien aurrean, egun soltetako erabilera ere egin daiteke.

GURASO KOOPERATIBA

Betiko Ikastola herri ekimenez sortutako guraso kooperatiba da, irabazi asmorik gabekoa, Herri Onurako izendapena duena eta Ikastolen Elkarteko kidea.

Seme-alabak ikastolan matrikulatzerakoan familiak Kooperatibista izaera hartzen du. Familiak erabaki behar du nor izango den Kooperatibista nominala eta hori jakinarazi behar da ikaslea bertaratzerakoan.

Kooperatibista izaerari lotuta betebehar eta eskubideak bereganatzen ditu familiak, horien artean, bereziki gure ikastolan ematen direnak ondorengoak dira.

- Ikastolako eraikin eta espazioak alokatzeko aukera norberaren erabilerarako.
- Jantokia alokatzeko aukera
- Sukaldea alokatzeko aukera
- Frontoia alokatzeko aukera

Parte hartzeko lantaldeak:
- ASANBLADA OROKORRA
- TALDE PEDAGOGIKOA
- TALDE EKONOMIKOA
- KIROL TALDEA
- MANTENU TALDEA
- IKASTURTE HASIERAKO GURASO BILERA
- GURASO ORDEZKARIEN TALDEA
- GELETAKO GURASOEN BILERAK

- **Guraso txanda**

Familia bakoitzak ikasturtero 40 lan ordu ematen ditu guraso txanda delakoa betetzen, kooperatibako lan desberdinak eginez.
Lan horiek dira:
- Jantokiko “office”-an eguerdiko ordutegian.
- Hilean behin larunbat goiz bat mantenu orokor eta pintura lanetan.
- Garraio zerbitzuan laguntza ematen ikasle txikiak autobusetara igotzeko.

BETIKO
IKASTOLA

Si quieres o necesitas leer esta guía en castellano
utiliza el codigo QR de esta pagina.

Leioako ikastola bakarra gara,
Artatza auzoko parkean kokatua.

HELBIDEA:
Artatza auzoa 84, Leioa.
48940 · Bizkaia

BETIKOIKASTOLA.EUS

BETIKO IKASTOLA